



# ORIOKO CURRICULUMA SORTZEN HASTEKO PROIEKTUA



Orio, 2012ko azaroa



# PROIEKTUAREN HELBURUA

Proiektu honen helburu nagusia Orioko Curriculuma osatzen hastea da.

Herriaren kokapen eta bisio ariketa planteatu nahi dugu, neurri handi batean. Horrek, atzera eta aurrera begirako zalantzak eta galderak planteatzen dizkigu, derrigor erantzun beharrekoak: zertan datza Orioren eta oriotarron nortasuna? Zer dugu komunean oriotarrok eta zer eduki nahi dugu etorkizunean? Zer du Oriok emateko Euskal Herriari eta oro har munduari? Zer transmititu nahi diegu etorkizuneko herritarrei?

## Herritik herriarentzat

Herriaren izaera definitzeko saiakera ez litzateke hezkuntzaren esparrutik bakarrik bideratu behar, hori proposamen murrizta edo erdibidekoa litzatekeelako. Galdera horiei erantzutea ez dagokie soilik aditu, pedagogo eta irakasleei; herritarrei ere badagokie. Herri eragileek eta herritarrek zer esan handia dute. Elkarlana proposatzen dugu eta hartu-eman hori bi norabidetan planteatzen dugu:

### ›Herritik eskolara

Herritar eta herri eragile ugari ari dira Orion lanean, nor bere alorrean. Guztiek, bakoitza bere esperientziatik abiatuta, ekarpenak egin ditzakete herriko curriculumean. Adibideak, hamaika: esaterako, ekologiaren arloan dabiltzanek ekarpena egin dezakete ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako hezkuntzaz; eta berdin euskalgintzan, emakume mugimenduan, kirolean, ongizatean, komunikabideetan, kulturgintzan eta beste hainbat alorretan.

### ›Eskolatik herrira

Belaunaldi berrien heziketa ez da eskolan hasi eta amaitzen; familian, lagunartean eta kalean ere gauzatzen da. Horregatik, eskolak, berak bakarrik ezin bidera lezake euskal haur eta gazteen heziketa. Ezin zuen lehen, eta orain gutxiago. Gizartearen beste eremuek ere lagundu eta parte hartu behar dute heziketa prozesuan.



Beraz, lotura eta nolabaiteko artikulazioa aurkitu behar dugu hezkuntza eragileen eta gainontzekoen artean. Esandakoagatik: herritar asko izaera eta lan-eremu ezberdinetako herri eragiletan biltzen dira eta herritarren ekarpena biltzea ezinbestekoa da herrietako curriculuma osatzeko garaian. Herri eragileak dira, nor bere alorretik, herri proiektua definitzen eta lantzen ari direnak. Herri eragileak dira, etengabeko aldaketan dagoen mundu eta jendarte honetan, aldaketa horien aurrean erreakzionatzeko gaitasuna daukatenak. Eta, hortaz, herri eragileek egin behar dute ekarpenik handiena hezkuntzak bermatu beharreko jakintza, abilezia eta, batez ere, baloreetan.

Baina herri eragileen papera ez da hor amaitzen. Izan ere, kontuan hartu behar dugu eskolak biharko Euskal Herria eta Orio sortzeko elementu bat besterik ez direla. Elementu garrantzitsua, baina ez bakarra. Ez dezagun ahaztu: gaur egungo gazteek denbora bera igarotzen dute urtean telebistaren aurrean eta ikasgelan. Horregatik, ezin diogu eskolari eskatu gaur egun ditugun arazo guztiak konpon ditzan. Guztiok inplikatu behar dugu jendarte berri baten sorreran, justizian eta askatasunean oinarritutako jendarte baten sorreran: eskolak, familieek, herri eragileek, komunikabideek... Guztiok inplikatu behar dugu Orioko curriculuma garatzen.

Horregatik, herriaren eta eskolaren arteko lotura hori guztiz beharrezkoa da; Orioko curriculumaren definizioan, batetik, eta curriculumaren garapenean, bestetik. Zorionez, herri eragile gehienak ildo horretan ari dira lanean. Herri eragileak jakitun dira beren funtzio hezitzaileaz eta horietako askok hezkuntza egitasmoak sustatzen ari dira, bai eskoletako programetan zuzenean parte hartuz, bai eskolaz kanpoko ekintzen bidez, eta baita hezkuntza ez-formalaren alorrean ere.

Aipatutako arrazoi guztiengatik herriarentzat lehentasunezkoa eta estrategikoa den atala lantzerantz goazela uste dugu.



## Curriculuma, aspaldiko beharra

Herriaren izaera biltzen duen dokumentu pedagogiko baten beharra ez da zerbait berria. Begia Orioko eremutik harantz zabalduz, Euskal Herrian bertan, herritarrek kezka handia erakutsi dute hezkuntza kontuen inguruan eta modu aktiboan sustatu dituzte hezkuntza egitasmo euskaldunak. Horren erakusgarri dira, esate baterako, ikastola bakoitzaren inguruan herritarrek egin duten lan izugarria edota eskola publikoan euskarazko lerroak irekitzeko auzoz auzo egindakoa. Horren adibide da, baita ere, hezkuntza eremuko jaialdietan biltzen den jendetza. Orio ere ez da salbuespen hezkuntza esparruko kezkari eta tentsioari dagokionez. Herriaren eta hezkuntzaren arteko loturak balore handia dauka eta, aurrerantzean, etengabe elikatu behar litzateke.

Eskoletan landu behar diren gaiak zeharkakoak direla esaten dugu askotan. Herriko curriculumak bereziki edo beste gai batzuekin batera landuko dituzte genero berdintasuna, herritarrak eta immigrazioa, hizkuntza... Azken batean, herriko haur eta gazteen heziketan presente egon behar duten baloreak nola landu ari gara erabakitzen. Zeharkako politikei curriculumean lekua eginda, erdigunera ekarriko ditugu gai hauek.



# PROIEKTUAREN FASEAK

## LEHEN FASEA. Aurrekariak: hezkuntza jardunaldiak

Orioko curriculuma idaztearen beharra ez da norbanako edo talde baten nahi edo ilusio batetik sortzen. Prozesuan parte-hartzaile izango diren eragileen arteko topaketak izan ziren proiektuaren aurrekari nagusiak. Topaketa haietan bi ondorio nagusi atera zirelako: batetik, herritik sortutako curriculumaren beharra eta, bestetik, jardun eremu ezberdinetan ari diren eragileen arteko harremanak artikulatu beharra.

2010. urteko azaroan 03ten.HSN (Hezkuntza Sistema Nazionalea) hezkuntza jardunaldiak antolatu zituen Orioko Independentisten Foroak, hezkuntzak egunerokotasunean, nazioaren eraikuntzan, norbanakoaren garapenean, historian, euskal kulturaren transmisioan eta abarretan duen garrantziaz ohartuta. Jardunaldien bueltan talde ugaritako ordezkariak bildu ziren: Mugabek kudeatzen duen Esperientzia Eskolakoak, Txurumuski aisialdi taldekoak, Maria Maestra haurreskolakoak, Danbolin Musika Eskolakoak, Orioko Herri Ikastolakoak eta Zaragueta Herri Eskolakoak. Hezkuntza sistema propioa ez izateak sortutako mugak, politikak eragindako aldaketak, euskal curriculuma sortzeko oztopoen jakitun, hausnarketa prozesua jarri zuten martxan, besteak beste, administrazioek egindako aldaketak aztertu, esperientziak elkarbanatu eta, batez ere, Orioko hezkuntza esparruko eragileek osatutako aholku mahaia sortzeko helburuarekin. Hiru multzotan banatu zituzten jardunaldiak: euskal harria, Euskal Herria eta euskal irria.

Kulturaren transmisioaz eta eraberritzeaz aritu ziren **Euskal Harria** atalean. Atzera begiratu eta euskaldunon joan-etorrian ezinbestekotzat dituzten gertakariak aztertu zituzten. Ez dok hamahiru taldeaz eta euskal kulturaren suspertzeaz aritu zen Benito Lertxundi; Nabarraldeko Beñi Agirrek 500. urtemugan 1512: Nafarroaren konkista hitzaldia eskaini zuen eta Edurne Epeldek emakumeen ekarpenak aztertu zituen hezkuntzan eta hezkidetzaren ikuspegitik.

Gaur egungo hezkuntza sistemaren errealitatea izan zen hizpide Euskal Herria sailean. Azkenaldian izandako aldaketak aztertu eta hezkuntza propioaren bidea egiteko beharrezko diren elementuak identifikatzen saiatu ziren Orioko hezkuntza eragileen mahai inguruan. Horrez gain, Euskal Herriko hezkuntza sistema ere aztertu zuten: hezkuntza ereduez aritu ziren Euskal Herriak Bere Eskolako Ainhoa Larrabe, Hik Hasi aldizkariako koordinatzaile Arantxa Urbe eta Joxemari Azurmendi eta Joxe Mari Agirretxe Porrotx.

Euskal irriak haurrak izan zituen protagonista, zoriontsu izateko hezi behar direlako norbanakoak, eta hezkuntzak norberaren nortasuna eta zoriontasuna bilatzen lagundu behar duelako.

Kokapen ariketetan lehenak izan ziren jardunaldiak. Hezkuntza eragileez gain, bestelakoak ere izan ziren publikoan eta eztabaidetan parte-hartzaile. 03ten.HSN jardunaldiak mugarri dira, aurkezten dugun proiektuaren zutarrak eragileek han markatu zituzten ondorioetatik ekarriak direlako: hainbat esparrutako eragileek harremanetan jardun beharra Orioren izaeratik hezkuntza eta gestio estrategia garatzeko.

Hortik dator, elkarlanean, Orioko curriculum sortzeko proposatzen dugun prozesu parte-hartzailea.



*Hezkuntza mailako zenbait aritu eta aditu eta Mugabek kudeatzen duen Esperientzia Eskolako, Txurrunuski aisialdi taldeko, Maria Maestra haurreskolako, Danbolin Musika Eskolako, Orioko Herri Ikastolako eta Zaragueta Herri Eskolako ordezkariak bildu ziren. Argazkian eragileak eta Porrotx pailazoa herritarrak atzean direla.*



Behin Orioko hezkuntza eragileen lehen kontaktua eta bi ondorio nagusiak eskuan Orioko curriculumaren aldeko talde eragileak Udalaren laguntza beharrezko ikusten du ekimena bideratzeko. Harremanak 2011ko udal hauteskundeetan ostean bideratu ziren. Proiektuaren garrantzia eta pisua ikusita, proiektuaren faseak definitu eta aldian-aldiko beharren aurreikuspena egin berri dute talde eragileak eta Orioko Udalak. Orain parte hartze prozesua nola bideratu asmatzea da proiektuaren erronka.

## BIGARREN FASEA. Curriculum osatzea

Bi eragileak jakitun dira proiektuaren zabaltasunaz eta zailtasunaz. Baina oinarrizko ariketak horixe dute, mugak jarri behar zaizkiela. Alegia, non hasi eta non amaitu abiatu aurretik zehaztu behar dela. Ariketa hori eginda, bigarren fase honetan egin beharreko urratsak zehaztu dituzte:

|   | BIGARREN FASEKO URRATSAK                                   |
|---|------------------------------------------------------------|
| 1 | Oinarrizko lan-taldea sortu                                |
| 2 | Proiektua sozializatu                                      |
| 3 | 03ten HSN 2. jardunaldiak: ijitoen akordioa eta aurkezpena |
| 4 | Ezaugarrien bilketa lana                                   |

Goazen fase guztiak banan bana azaltzera. Fase hauen batura izango da prozesuaren estrategia metodologikoa.

### 1. urratsa: lan taldea sortzea

Proiektua bideratuko duen oinarrizko lan-taldea indartzea izango da 2012. urteko lehen egitekoa. Garrantzitsua ikusten da jarraian aipatuko diren bi perfil hauetako jendearekin osatzea proiektutik tirako duen nukleoa edo oinarrizko lan-taldea:

› Eragile eta taldeekin harremanak bideratzeko gaitasuna izango duen giza taldea osatzen garrantzitsua da, azken batean, giza hauetako proiektuak bideratu behar dituztenek giza igurtzian eta elkarlanean oinarritu behar dutelako beraien jarduerak.



> Horrez gain, lantzeraz goazen esparruetan (bilketa esparruetan zehaztuko dira geroago) arituak eta adituak izan diren oriotarrak edo herriari buruzko ezagutza dutenak nukleoan egotea behar du proiektuak.

## 2. urratsa: proiektua sozializatzea

Ondoren, herriko eragileen eta herritarren artean proiektua sozializatzea izango da urteko egitekorik garrantzitsuenak. Helburua bakarra da, aurkezpen ofiziala egin aurretik talde eta norbanakoen atxikimenduak gehitu eta aurkezpenean herri-indarra baliatzea. Herriko eragileei transmititu beharrekoa hauxe litzateke: herriko curriculumak osatzea guztioi dagokigu, ez dela hezkuntza eragileen lana bakarrik. Bakoitzak bere esparruan edo interesa duen horretan eragin behar du.

## 3. urratsa: 03ten.HSN 2. jardunaldiak:

### Ijitoen akordioa

Atxikimendua eman duten alderdi, eragile eta norbanakoak akordioa sinatzea interesgarri ikusten da, curriculumak idazteko prozesuan parte hartuko dutela akordio batean biltzeko beharra adieraztea. 03ten.HSN 2. jardunaldietan kokatuko genduko aipatutako dokumentua, Ijitoen Akordioa izenarekin.

Horrez gain, agerraldi horrekin herriari aurkeztuko zaio elkarlanean gauzatu nahi den proiektua. Jardunaldien baitan egitasmoaren helburuak aurkeztu eta proiektua gauzatzeko egingo diren urratsak zein diren zehaztuko dira. Garrantzitsua litzateke eragile nabarmenenek azaltzea ze helbururekin abiatzen diren proiektuan parte hartzea.

Prozesua azaldu eta hurrengo urratsa azaltzen jarriko da ahalegin handiena: alegia, Orioko izaeraren parte diren ezaugarri eta elementuen bilketa nola gauzatu nahi den azalduko dute akordioa sinatu duten talde eta norbanakoen artean.

Garrantzitsua da ez talde eragileak eta ez Orioko Udalak hartzea akordioaren erdigunea. Azken batean, herriko eragileak dira proiektuaren erdigunean kokatu behar direnak; proiektutik tiratzeko oinarritzko proiektua landuko duen jendea, alegia.

Bestalde, komeni da akordioak oihartzun handi samarra izatea herrian, Horretarako, prozesuan eragile gisa hartuko du parte herriko etxe guztietara iristen den Karkara aldizkariak, eta urtetan dokumentazioan egindako lanaz gain informazioa herritarrengana iristeko ardura nagusia berea izango da.



Hortik aurrera hasiko da eragileen arteko parte hartze prozesua. Informazio bilketa izango du funtzio hurrengo pausoak, curriculumaren oinarri izango diren elementu eta ezaugarrien bilketa lana izango da, denak ere Orioko izaeraren elementu eta ezaugarriak. Hau guztia herriko eragileen ekarpenekin egingo da.

## 4. urratsa: bilketa lana

### Bilketaren antolaketa. Helburuak eta Metodologia

Burutu beharreko prozesua ez da hutsetik hasten. Badugu eskarmentua 2010. urtean burutu genituen jardunaldietan. Balorazio oso positiboa egin genuen, besteak beste herrian oso ongi baloratua izan zelako erabili genuen formatu, ikuspegi eta metodologia. Jende askorekin egon ginen eta horiengana jotzea oinarritzkoa izango da. Beraz, osatu beharreko proposamena eta hori egiteko bidea O3TEN osatutako filosofiarekin eta horren jarraipen natural gisa ulertu beharko litzateke. Orduan lortu genituen hariak iruten jarraitzeko.

Herritarren ekarpena biltzeko orduan, esan bezala, herri eragileengana nahiz alorrez alor interesgarriak jotzen ditugun pertsonengana jo behar dugu. Horretarako, O3TEN jardunaldien eskemari jarraiki, ardatzak mantenduko ditugu: herria, harria eta irria. Prozesuaren urrats honetan, ordea, aurrekoei beste hiru kontzeptu batuko dizkiogu iruten jarraitzeko: hiru kolore, hiru atal, informazio bilketaren zutarriz izango direnak.

|                                          |
|------------------------------------------|
| <b>EUSKAL HARRIA. Orio eta historia.</b> |
|------------------------------------------|

**URDINA** da kolore klabea. Orioren biziraupena denboran zehar itsasoari, eta ibaiari loturik egon da. Kokapen geografikoa gure herriaren bilakaeran ezinbesteko aldagaia da.

**GIZARTE ZIENTZIAK.** Arlo honetan tentaldia izan dezakegu historia modu hertsian ulertzeko eta ikuspegi estadistiko batetik azaltzeko (datak...) Baina Barandiani jarriki zibilizazio ezaugarriak edo kultur elementuak honako hauek direla esan dezakegu: giza talde batek (kasu honetan, oriotarrok) bizitzaren oinarritzko arazoei ematen dizkien erantzuna edo irtenbideak. Hortik sortzen da gure herriaren berezitasunak ezagutzeko interesa. Beraz, arlo honi ikuspegi zabalago bat eman eta galdera huen baitan definitu dezakegu:



### 1.- Non bizi gara eta nola antolatzen dugu espazioa?

Orioren kokapena Euskal Herrian eta oro har munduan: mendiak, ibaiak, inguruan dauden herriak...

Era berean, gure paisaia, gure kultura bezalaxe, milaka urtetan moldatzen joan da gaur egungoa izatera iritsi arte; hori ulertu nahi badugu, modelatze horretan eragin duten arau orokorrak aztertu eta ezagutu behar ditugu.

Azkenik, paisaia horrek zenbait arazo ere planteatzen ditu, oriotarrok izadiarekin duen elkarrekintzatik sortzen direnak. Horiek zerrendatu beharko lirateke.

### 2.- Zein eta zenbat gara?

Orioren bilakaera sozio-politikoa ulertu nahi badugu, ezinbestekoa dugu denboraren joan-etorrian egon diren biztanleriaren aldaketak ezagutzea, demografiaren dinamikak kulturaren, hizkuntzan eta ekonomian duen eraginaz jabetzeko; zuntz horiekin eraiki beharko dugulako biharko Orio.

### 3.- Nondik gatoz?

Orio ez da modu isolatuan bizi, garatu. Ez gara uharte herri bat. Historiaurrean zehar eta, jakina, geroagoko historian ere, askotariko eraginak iritsi zaikigu, hala iparraldetik nola hegoaldeko. Horiek batzea izan behar du helburua.

### 4.- Nola lortzen ditut beharrezkoak zaizkidan gauzak?

Herri baten iraganean, orainean eta geroan ekonomiak duen garrantzia jakin beharreko gaia da. Izan ere, edozein herriren ibilbide historikoan bizibideak nola erdietsi dituzten bertako biztanleek ezagutu behar dugu.

### 5.- Zein ezaugarri nagusik definitzen du egungo Orioko gizartea, nola ezaugarritzen gaituzte kanpoan, nora goaz Orion?



**EUSKAL HERRIA.** Herritarrak, kolektibitatea, ehun soziala.  
Auzolana, nortasuna.

**HORIA.** Orio, Oria, horia, nortasuna, aurrauna.

Arlo honi loturik, esaterako, baditugu kantu propioak edota oso sustraituta daudenak. Herri kantuzalea izan da Orio eta, era berean, baditugu famatuak diren musikariak ere. Bada, altxor hori biltzea badagokigu: esate baterako, oriotarrok konpartitu nahi ditugun 20 abesti identifikatu beharko genituzke: Bailearen bertsoak, Aliron, Arraunlarien abestia, Gozategi eta Benito Lertxundiren kantu famatuak, San Nikolas eta San Pedro martxak...

Beste espresioei dagokienez ere, gauza berbera egin beharko genutke.

Alor honetan ikuspegi hauek landuko ditugu:

- 1) Kirola eta kultura. Urtetan landu diren espresioak eta kirolak.
- 2) Oriotarrok kanpokoan begietan.
- 3) Pertsonaia ospetsuak.

**EUSKAL IRRIA.** "Koloretako ametsak esna nagoenean eta ezin loak hartu gaua iristen denean"

**BERDEA.** Esperantza, kontzientzia, ilusioa, natura, hizkuntza, irekitasuna.

Oriotarrok badugu hizkera propio bat, beste herrietako bizilagunak duten bezalaxe. Askotan, Euskal Herriko beste txoko batzuetara joaten garenean gure hizketagatik ezagutzen gaituzte; izan ere, oriotarrok badugu ahoskatzeko eta gauza batzuk adierazteko gure-gureak diren kontzeptu edota esamoldeak. Horrek bizitzaren aurrean ditugun jarrerak nabarmen uzten ditu. Arlo honetan, batetik, ezaugarri horiek biltzea dagokigu eta, bestetik, Orion euskararen bilakaera zein izan den aztertzea.

Aurreko lerroetan zirriboratu duguna izango da proiektuaren fase garrantzitsua. 03ten.HSN 2. jardunaldiarekin eta Ijitoen Akordioarekin abiatu genuke curriculumaren oinarri izango den ezaugarri eta elementuen bilketa. Baina Orioko Udalak eta curriculumaren talde eragileak ondo antolatu behar dute fase honi dagokion partehartze



prozesua, gainontzean ez baitu prozesuak eta emaitzak behar duen babes soziala eta zabalkundea izango.

Alegia, herriko eragileak bilketan jartzea da asmoa. Hezkuntza eragileak bakarrik ez, kirol, kultur, aisialdi, ongizate alorrean lanean ari diren herriko taldeak eta norbanakoak gehituko dute informazioa edo materiala curriculumaren oinarri izango den dokumentura. Horretarako, proiektuaren oinarri izango den taldearen laguntza eta gidaritza izango dute, baina eragileak eta herritarrak izango dira subjektu aktibo.

Adibide bat jartzea izango da egokiena. Demagun, Orioko dantza errealitatearen historian erreferentzialak izan diren mugimenduak, dantza taldeak, dantzak eta pertsona erreferentzialak bildu behar direla hirugarren zutaberako, zutabe berderako, Orioko herriaren kultur espresioen atala osatzeko. Aipatu bezala, ezinbesteko papera jokatzeko du lan honetan Orioko Harribil Dantza Taldeak. Ijitoen Akordioa sinatzeko prest agertu da herriko dantza talde bakarra (dantzaren munduan Harribil taldea bakarrik dago herrian), eta beren aportazioa ez da atxikimendu hutsean geldituko. Izan ere, oinarritzko taldeak lagunduta, bera izango da bilketa lana burutuko duena: pertsonaia erreferentzialak elkarriketatu, materiala bildu eta dantzak erreuperatu. Hori guztia oinarritzko taldeak eta bere langileak lagunduta. Eta alorrez alor egingo da beste esparru guztietan.

Prozesu honek guztiak hiru zutarrak izango ditu: erreferentzia, informazio trukea eta eztabaida. Erreferentzia herrian zabalduko dugun bulego irekiarekin aurkitzen saiatuko gara, herritarrek informazioa izan dezaten web gunea zabaltzeko eta informazioa bideratuko dugu herriko komunikabideetan. Azkenik, mintegi eta jardunaldi irekiak antolatuko dira, eragileek bildu duten informazioaren gainean eztabaidatzeko.

Bulego irekia izango da proiektuaren erreferentzia geografikoa. Curriculumaren bilketa faseak badu arrisku bat, gutxienez: herritarrek ez ulertzea oso ondo informazio bilketa zertarako den, eta herritarrek informazio bilketa hori ez behar bezala bisualizatzea. Horretarako, informazioa lantzen ari diren eragileak eta oinarritzko taldeak lanerako lekua izango duten bulego irekia izatea proposatzen dugu, erreferentziala, herriko komunikabideetan erreferentziak izango dituen. Hartara, ekimenean parte hartu nahi duten herritarrek ez dute zalantzarik izango nora jo. Bulego irekia deitu duguna, herriaren erdigunean kokatuko da, eta gela propioa izango du. Oinarritzko taldearen langilearen bulegoa ez ezik, paretean post-it bidez antolatuko da alorrez alor biltzen ari den guztia.

Horrez gain, herritarrei bilketa- fasea eta prozesu osoari buruzko informazioa zabaltzea izango da arestian aipatu dugun arazoari aurre hartzeko egitekoa. Horretarako bi ezinbesteko elementu planteatzen dira: lehena blog tipoko web ataria, eta bigarrena biltzen diren ezaugarri eta elementuei buruzko prentsa gestioa. Informazioa ezinbesteko aldagaia da parte hartze prozesu batean. Oraindik ez dugu internet bidezko atariaren



izena asmatu, baina Orioko Udalarekin eta Karkara aldizkariarekin harreman zuzena izango du.

Prentsa gestioaren beharra ere nabarmena du proiektuaren fase zehatz honek. Izan ere, bilketa lanak baditu proiektuaren zabalkundeak interesagarri izan daitezkeen istorioak eta horiek, interesgarri diren heinean, beste eragile eta herritarren interesa sortu dezakete. Horregatik, interesagarri ikusten dugu alorrez alor egiten den bilketa lana herritarrei komunikatzea. Dantzaren adibidea erabili dugu lehen eta adibide berberari eutsiko diogu jarraian. Harribilek garai bateko dantza irakasle bat edo dantza talde bateko ordezkaria elkarrizketatzen badu, horrekin erreportajeak osatu daitezke. Bilketa prozesuak irauten duen epean atal finkoa ere izan dezakete erreportaje horiek. Herritarrek erreportajeak irakurtzean, bi gauza lortu ditzakegu: bulego irekira jotzea berek ere bilketan interesa dutelako, edo zuzenean ezaugarri edo elementuren bat eskaintzea, interesgarri izango delakoan. Hori guztia Karkara aldizkariko kideen esperientzia kontuan hartuta sortuko da, izan ere, aldizkarian egiten diren erreportaje historiko guztien ostean dezentetan agertzen omen da herritarren bat beste ideia edo iker lerroren batekin.

Bilketa lana izango da alorraren zati garrantzitsuena. Lehen bi zutabeak, urdina eta horia datu objektiboz beteta daude, alegia, datu bilketatik haratago ez du prozesuak zalantza handirik sortuko. Datuak ordenatu, sakondu eta egiaztatzea izango da lanik zailena, seguru asko. Baina azken zutabeko gaiak, zeharkakoenak direnak, landu beharrekoak dira: immigrazioa, feminismoa, hizkuntza... Gai horiek guztiak bilketa lanaz gain gogoeta merezi dute. Horregatik, fasearen amaiera aldera, behin bilketa egin baina erredakzio lana gauzatzen hasi aurretik, eztabaida fasea behar dute. Horretarako antolatuko dira jardunaldiak eta mintegiak. Jardunaldi horietan, bilketa fasean parte hartu duten eragileak, arituek eta adituek hartuko dute parte. Helburua gaia sozializatu eta hezurdura iltzatzea izango da.



## HIRUGARREN FASEA. Curriculumaren idazketa eta horren aplikazioa

Behin bilketa fasea amaitu ostean, ekarpen guztiak bulego irekian jaso ondoren, txostena osatuko da. Baina lanik handiena 2014. urterako aurreikusten dugu: bilketa txostenaren egokitze pedagogikoa; alegia, Orioko curriculuma bera idaztea. Prozesu horretan ardatz izango dira hezkuntza eragileak, herrian alor horietan lanean ari diren aisialdi taldeak eta hezkuntza zentroak: Mugabek kudeatzen duen Esperientzia Eskola, Txurumuski aisialdi taldea, Maria Maestra haurreskola, Danbolin Musika Eskola, Orioko Herri Ikastola eta Zaragueta Herri Eskola. Mahai batean eseri eta informazioari aplikazio eta erabilera pedagogikoa txertatzea izango da fase honen egitekoa.

Curriculum osatu ondoren, aplikatzea da azken urratsa.

Oso garrantzitsua da hasieratik proiektuaren amaiera ondo kokatzea. Curriculumaren erabilera eta aplikazioa izango delako, beharbada, proiektuaren alderdi zailena eta korapilatsuenak. Hasteko, kontuan izan behar baitugu herriko curriculum etengabe eguneratu beharko den zerbait dela. Alegia, curriculumak dinamikoa izan behar duela, herria aldatzen den bezala aldatzen baitira izaera definitzen duten ezaugarriak, herritarrak eta herria bera. Beraz, ezin gatzatzea dokumentuaren estu lotu, urte gutxitan berridatzi beharra izango delako.

Aplikazioa izango da prozesuaren faserik ikusgarriena. Fase horretan ezinbesteko papera jokatzeko dute, osterako ere, herriko eragileak. Alorrez alor, aplikazio ugari izango ditu curriculumak eta exekuzioan transmisio bide nagusiak izango dira herriko taldeak.

Halere, aplikazioa ez da bakarrik hezkuntzara bideratuko. Curriculum den heinean, hezkuntzan aplikatuko da; baina egitasmo gehiagoren oinarri ere izan behar du bildu den informazio guztiak eta osatu diren dokumentuak. Izan ere, herriaren transformazio geografikoa herriko haurrek ulertzea garrantzitsua da; baina Udalean hirigintzan ari direnek ere kontuan izan behar dute. Gauza bera festen alorrean, esaterako: haurrek festetan urtero egin ohi zen dantza bat ikastea garrantzizkoa da, baina festen antolakuntzan dabilenak ere jakin behar du —eta presente izan— lehen egiten zena. Beraz, aplikazio ugari izango du curriculumak, ez hezkuntzaren alorrean bakarrik.

Orioko curriculumaren aldeko talde eragileak